

**FRIEDRICH HÖLDERLIN (1779-1843): OLERKIAK
(ITZULTZAILE: LUIS AROSTEGI)**

Der Lorbeer. 1788.

Dank dir! aus dem schnadernden Gedränge
Nahmst du mich, Vertraute! Einsamkeit!
Daß ich glühend von dem Lorbeer singe,
Dem so einzig sich mein Herz geweiht.

Euch zu folgen, Große! – Werd ichs können?
Wirds einst stärker, eures Jünglings Lied?
Soll ich in die Bahn, zum Ziel zu rennen,
Dem diß Auge so entgegenglüht?

Wann ein Klopstok in des Tempels Halle
Seinem Gott das Flammenopfer bringt
Und in seiner Psalmen Jubelschalle
Himmelan sich seine Seele schwingt –

Wann mein Yung in dunkeln Einsamkeiten
Rings versammelnd seine Todte wacht,
Himmlicher zu stimmen seine Saiten
Für Begeistrungen der Mitternacht – –

Ha! der Wonne! ferne nur zu stehen
Lauschend ihres Liedes Flammenguß,
Ihres Geistes Schöpfungen zu sehen
Warlich! es ist Himmelsvorgenuß.

Ereinetza. 1788.

Eskerrak zuri!, jentetza barritsutik
artu ninduzun, zintzo!, bakartade!
ereinetza abestu dagidan sutsu,
nire biotza ain da-eta ari bakarrik emona.

Zuei jarraitzerik, andiak! – aal izango ete dot?
Izango ete bein indartsuago, zuen gaztearen abestia?
Artu bear dot bidea, begiok ain suar joten daben
elburura lasterka joateko?

Klopstock batek jauretxeko aretoan
bere Jainkoari sugar oparia dakartsonean
eta bere salmoen pozezko soinuaz
bere arima zerurantz goratzen danean –

nire Young bakartade ilunetan
bere ildakoak biran batuz itzarrik danean,
bere ariei gauerdiko goiargi aldietan – –
soinu zerutarragoa aterazteko – –

A!, au zoriona! urrun baino ez izatea
areen abesti isuri gartsua entzuten,
areen espirituaren sorkuntzak ikustea
egiaz!, zerua aurrez gozatzea da.

Nein! ich wolte nichts auf dieser Erden!
 Dulden all' der Welt Verfolgungen
 Jedes Drangsaal, jegliche Beschwerden,
 All des Neiders bittre Schmähungen – –

Lieber Gott! wie oft ich schwacher dachte,
 Wie ichs tröstete das arme Herz
 Wenn ich Nächte kummervoll durchwachte,
 O so oft, so oft in meinem Schmerz,

Wann der Stolz verächtlich niederschaute,
 Wann der Eitle meiner spottete,
 Dem vor meinen Sittensprüchen graute,
 Wenn oft selbst – mich floh – der Edlere;

O vielleicht, daß diese Bitterkeiten –
 Dacht' ich – stärker bilden deinen Geist!
 Daß die Stille höher deine Saiten
 Stimmt, zu männlichem Gesang dich reißt!

Aber still! Die goldne Bubenträume
 Hört in ihrer Nacht die Zukunft nicht –
 Schon so manche Früchte schöner Keime
 Logen grausam mir ins Angesicht.

Ez!, ez neban ezer nai lur onetan!
Egonarriz jasan munduko jazarpen guztiak
atsekabe bakoitza, neke bakoitza,
bekaiztiaren irain garratz guztiak – –

Jaungoiko maitea!, bai sarri, aul, gogoan nebala,
zelan biotz gaixoa gozatu
gauak arduratan itzarrik igaroz,
oi ain sarri, ain sarri neure saminean,

arroak destainuz goitik beera begiratzean,
nire jarduera arauak iguingarri ekiozan
arroputzak nitaz iseka egitean,
sarri – prestuagoak berak be – ies egistanean;

oi, bearbada garraztasun oneek –
pentsa nik – sendoago deusue barrua lantzen!,
isiltasunak bikainago ditu zure doinuak
egokitzen, gizon kantura zaitu eroaten!

Baina isil!, mutilaren urrezko ametsak
ez ditu etorkizunak bere gauean entzuten –
Onezkero kimu ederren ainbeste frutuk
aurpegira iruzur anker egin deuste.

Die Ehrsucht. 1788.

Groser Nahme! – Millionenherzen
 Lokt ins Elend der Sirenton
 Tausend Schwächen wimmern, tausend Schmerzen
 Um der Ehrsucht eitlen Flittertron.

Seine schwarze, blutbefleckte Hände
 Dünken dem Erobrer götlichschön –
 Schwache morden scheint ihm keine Sünde,
 Und er jauchzt auf seine Trümmer hin.

Um wie Könige zu pralen, schänden
 Kleinre Wütriche ihr armes Land;
 Und um feile Ordensbänder wenden
 Rätke sich das Ruder aus der Hand.

Pfaffen spiegeln um Apostelehre
 Ihren Narren schwarze Wunder vor
 Um Mariasehre krächzen Nonnenchöre
 Wahnsinn zum Marienbild empor.

Graue Sünder donnern, ihre Blöße
 Wegzudonnern, rauh die Unschuld an;
 Gott zu leugnen hält so oft für Größe,
 Hält für Größe noch so oft – ein Mann.

Göttin in des Buben Mund zu heißen,
 Giebt das Mädchen ihren Reiz zum Sold;
 Mitzurasen in Verführerkraisen,
 Wird der Bube früh ein Trunkenbold.

Andinaia. 1788.

Izen andia! – Miloika biotz
ditu erakarten bear gorrira sirenen doinuak,
mila auleria dagoz antsiz, mila oinaze
andinaiairen jargoi utsalaren ingurura.

Bere esku baltz odolez loituei
jainkozko-eder deritxe menperatzaileak –
aula ilteari ez deritxo oben,
eta pozik dabil aren errautsen gain.

Errege arrandi naiez, iraindu egiten
beeko jauntzarrek euren lurralde gaixoa;
eta dedu-xingola salkorren truke
izten dabe onulariek lema eskutik kentzen.

Elizgizonek apostolu aintzarren
mirarikeriak deutseez euren eroei itxuratzen,
Mariaren oorez moja-koruek zorakeri
urubia dagitsoe Mariaren irudirari.

Obendari ilunek, euren biluzia uxatzeko,
trumoiz joten dabe zakarki errugabea;
Jainkoa ukatzea anditzat dauka sarri,
aunditzat dauka oindino sarri – gizonak.

Jainkosa mutil gaztearen agoz deitua izatearren,
saltzen dau neskatilak bere xarmanta;
tentatzaile taldeen pareko izatearren
mozkorti biurtzen laster mutil gaztea.

Doch es sträubet sich des Jünglings Rechte,
 Länger sing' ich von den Thoren nicht.
 Wisse! schwaches, niedriges Geschlechte!
 Nahe steht der Narr am Bösewicht.

Die Demuth. 1788.

Hört, größere, edlere der Schwabensöhne!
 Die ihr vor keinem Dominiksgesicht
 Euch krümmet, welchen keine Dirnenträne
 Das winzige, geschwächte Herzchen bricht.

Hört, größere, edlere der Schwabensöhne!
 In welchen noch das Kleinod Freiheit pocht,
 Die ihr euch keines reichen Ahnherrn Miene,
 Und keiner Fürstenlaune unterjocht.

Geschlecht von oben! Vaterlandeskronen!
 Nur euch bewahre Gott vor Übermuth!
 O! Brüder! der Gedanke soll uns lohnen,
 In Hermann braußte kein Despotenblut.

Beweinenswertig ist des Stolzen Ende
 Wann er die Grube seiner Größe gräbt,
 Doch fürchterlich sind seine Henkershände,
 Wann er sich glücklich über andre hebt.

Viel sind und schön des stillen Mannes Freuden,
 Und stürmten auch auf ihn der Leiden viel,
 Er blickt gen Himmel unter seinen Leiden,
 Beneidet nie des Lachers Possenspiel.

Baina jarki egiten gaztearen eskuina,
ez dot geiago zoroez abestuko.
Jakizu!, arraza makal, baxua!,
gaiztoaren urreko da eroa.

Apaltasuna. 1788.

Entzun, Suabia-ko semerik andienak, prestuenak!
Inongo Dominik-aurpegi aurrean kikiltzen
ez zareenak, emagalduren malkoak
bioztxu txiki auldua apurtzen ez deitsuenak.

Entzun, Suabia-ko semerik andienak, prestuenak!
Oindino askatasun bitxiak taupada dagitsuenak,
ez aundiki aberatsaren aurpegikerak,
ez agintariaren gogaldiak azpiratzen ez zaituenak.

Goitiko enda!, aberriaren koroiak!,
gorde zagiez Jainkoak beintzat arrokeriatik!
Oi!, anaiok!, oroipena bekigu sari,
Hermann-gan ez eban irakiten jauntxo odolak.

Negargarria arroaren azkena
bere anditasunaren ilobia zulatzen dauanean,
baina ikaragarriak bere urkatzaile-eskuak,
besteen gaintetik zoriontsu jasotean.

Asko dira eta ederrak gizon baketsuaren pozak,
eta aren gainera saminik asko jausi arren,
zerura dau bere samin artean begiraten,
sekula irrilariaren narritak bekaiztu gabe.

Sein feurigster, sein erster Wunsch auf Erden
Ist allen, allen Menschen nützlich sein,
Und wann sie froh durch seine Thaten werden,
Dann will der edle ihres Danks sich freun.

O! Demuth, Demuth! laß uns all dich lieben,
Du bist, die uns zu einem Bund vereint,
In welchem gute Herzen nie sich trüben,
In welchem nie bedrängte Unschuld weint.

Drum größte, edlere der Schwabensöhne
Laßt Demuth, Demuth euer erstes sein,
Wie sehr das Herz nach Außenglanz sich sehne,
Laßt Demuth, Demuth euer erstes sein.

Vor allen, welchen Gott ein Herz gegeben
Das groß und königlich, und feurig ist
Die in Gefahren nur vor Freude beben,
Für Tugend selbst auf einem Blutgerüst,

Vor allen, allen, solche Schwabensöhne
O solche, Demuth, solche führe du
Aus jeder bäurischstolzen Narrenbühne
Den stillen Reihen jenes Bundes zu.

Bere guraririk gartsuena, leena, lurrean,
gizaki guztientzat onuratsu izatea,
eta bere egiteez poztu diranean,
areen esker onaz poztu nai dau zindoak.

O! apaltasun!, apaltasun!, maita zaiguzala danok,
zuk alkartzen gaituzu itun batean,
or ez dabe biotz onek iluntzerik,
ez errubako zapalduak negarrik.

Beraz, Suabia-ko semerik andienak, prestuenak,
apaltasuna izan bedi, apaltasuna, zuentzat leena,
biotza ain kanpoko distira-min izan arren,
apaltasuna izan bedi, apaltasuna, zuentzat leena.

Danen aurretik, Jainkoak biotz andi,
goren eta sutsua emon deutesnak,
arriskueta pozarren bakarrik dardar diranak,
urkamendian bertan be birtutearren bakarrik,

guzti-guztien aurretik, olango Suabia-ko semeak,
oi olangoak, apaltasun, olangoak gida zuk
zoro-antzoki arroputz orotik
itun aren lerro baketsuetara.

Die Stille. 1788.

Die du schon mein Knabenherz entzücktest,
 Welcher schon die Knabenträne floß,
 Die du früh dem Lärm der Thoren mich entrücktest
 Besser mich zu bilden, nahmst in Mutterschoos,

Dein, du Sanfte! Freundin aller Lieben!
 Dein, du Immertreue! sei mein Lied!
 Treu bist du in Sturm und Sonnenschein geblieben,
 Bleibst mir treu, wenn einst mich alles, alles flieht.

Jene Ruhe – jene Himmelswonne –
 O ich wußte nicht, wie mir geschah,
 Wann so oh in stiller Pracht die Abendsonne
 Durch den dunklen Wald zu mir heruntersah –

Du, o du nur hattest ausgegossen
 Jene Ruhe in des Knaben Sinn,
 Jene Himmelswonne ist aus dir geflossen,
 Hehre Stille! holde Freudegeberin!

Dein, war sie, die Träne, die im Haine
 Auf den abgepflückten Erdbeerstrauss
 Mir entfiel – mit dir ging ich im Mondenscheine
 Dann zurück ins liebe elterliche Haus.

Fernher sah ich schon die Kerzen flimmern,
 Schon wars Suppenzeit – ich eilte nicht!
 Spähte stillen Lächelns nach des Kirchhofs Wimmern
 Nach dem dreigefüßten Roß am Hochgericht.

Bakea. I 788

Mutiko biotza liluratu zeustana,
zuretzat isuri zan bai mutiko negarra,
zuk ninduzun goiz aldendu zoroen istilutik,
obeto ezitzeko, ama altzoan ninduzun artu,

zurea, samurra!, maite guztien adiskide!
zurea, beti-zintzoa!, izan bedi nire abestia!
Zintzo zara ekaitz eta eguzki aldian gelditu,
zintzo gelditzen zaiataz, dana niganik bein ies joanda.

Bake a –zeruko atsegin a –
oi, ez nekian zelan jazo ekidan,
ain sarri arrats eguzkiak jaukal isilean
baso iluna zear begiratzen eustanean –

zuk, oi zuk bakarrik zenduan isuri
bake a mutikoaren gogoan,
zeruko atsegin a zukanik zan jario,
bake gurena!, pozemoile onbera!

Zurea zan malko a, zugaztian
batutako mailuki mulura jausi
ekidana – zugaz nintzan iretargitan
gero biurtu gurasoen etxe maitera.

Urrinetik ikusi neban kandelen dizdiza,
afalordua zan onezkero – ez nik lasterrrik!
irripar isilez kanposantuko intzirien zain egon nintzan,
urkamendiko iru-ankako zaldiaren zain.

War ich endlich staubigt angekommen;
 Theilt ich erst den welken Erdbeerstraus,
 Rühmend, wie mit saurer Müh ich ihn bekommen,
 Unter meine dankende Geschwister aus;

Nahm dann eilig, was vom Abendessen
 An Kartoffeln mir noch übrig war,
 Schlich mich in der Stille, wann ich satt gegessen,
 Weg von meinem lustigen Geschwisterpaar.

Oh! in meines kleinen Stübchens Stille
 War mir dann so über alles wohl,
 Wie im Tempel, war mirs in der Nächte Hülle
 Wann so einsam von dem Thurm die Gloke scholl.

Alles schwieg, und schlief, ich wacht' alleine;
 Endlich wiegte mich die Stille ein,
 Und von meinem dunklen Erdbeerhaine
 Träumt' ich, und vom Gang im stillen Mondenschein.

Als ich weggerissen von den Meinen
 Aus dem lieben elterlichen Haus
 Unter Fremde irrte, wo ich nimmer weinen
 Durfte, in das bunte Weltgewirr' hinaus;

O wie pflegtest du den armen Jungen,
 Teure, so mit Mutterzärtlichkeit,
 Wann er sich im Weltgewirre müdgerungen,
 In der lieben, wehmutsvollen Einsamkeit.

Eldu nintzan azkenez autsez beterik;
banatu neban mailuki mulu zimeldua,
zelako aalegin neketsuz lortu neban arro esanez,
nire esker oneko anai-arreba artean;

artu neban gero beingoan afaritako
patatetatik niretzat gelditurikoa,
isil-gordeka joan nintzan, ase janda,
nire anai-arreba alai biokandik alde.

Oi!, nire gelatxu txikiko bakean
ederto nengoan orduan danaren gain,
jauretxean lez jatan gauetako ezkutuan
ain bakartu torreko kanpaiak jotean.

Dana isilik, eta lo, neu baino ez itzarrik,
azkenez seaskatu ninduan bakeak,
eta nire mailuki zugazti ilunaz
egin neban amets, eta iretargi baketsutan ibilteaz.

Neureakandik bananduta,
gurasoen etxe maitetik,
arrotz artean deslai nenbilela, negar egiterik
inoz ez neukala, munduko zalaparta nabarrean;

oi, bai jagon zenduala gazte gaixoa,
kutun orrek, ama-samurraz,
munduko zalapartan burrukaz nekatua,
bakartade maite, etxeminezkoan.

Als mir nach dem wärmern, vollern Herzen
 Feuriger izt stürzte Jünglingsblut;
 O! wie schweigtest du oft ungestümme Schmerzen,
 Stärktest du den schwachen oft mit neuem Muth.

Jezt belausch' ich oft in deiner Hütte
 Meinen Schlachtenstürmer Ossian,
 Schwebte oft in schimmernder Seraphen Mitte
 Mit dem Säng'er Gottes, Klopstok, himmelan.

Gott! und wann durch stille Schattenheken
 Mir mein Mädchen in die Arme fliegt,
 Und die Hasel, ihre Liebenden zu deken,
 Sorglich ihre grüne Zweige um uns schmiegt –

Wann im ganzen seegensvollen Thale
 Alles dann so stille, stille ist,
 Und die Freudenträne, hell im Abendstrale
 Schweigend mir mein Mädchen von der Wange wischt –

Oder wann in friedlichen Gefilden
 Mir mein Herzensfreund zur Seite geht,
 Und mich ganz dem edlen Jüngling nachzubilden
 Einzig vor der Seele der Gedanke steht –

Und wir bei den kleinen Kümmernissen
 Uns so sorglich in die Augen sehn
 Wann so sparsam öfters, und so abgerissen
 Uns die Worte von der ernsten Lippe gehn.

Biotz beroagora, beteagora
 gazte odola sutsuago batzen jatanean;
 oi!, zelan leuntzen zenduzan sarri min zakarrak,
 indartzen zenduan adore barriz aula.

Orain sarri deusat entzuten zure etxolan
 Osian nire gudari aintzindariari,
 egaz nabil serafin dizditsuen erdian
 Jainkoaren abeslariagaz, Klopstock-egaz, zerurantz.

Jainkoa!, eta itzal esi baketsu zear
 nire neskea besoetara egan jatordanean,
 eta urrutxak, bere maitaleak ezkutatzeko,
 arretaz bere adar berdeak gure inguru makurtzean –

ibar bedeinkatu osoan
 dana gero ain baketsu, baketsu danean,
 eta poz-malkoa, argi arrats errainutan,
 nire neskeak isilik masailetik legortzean –

edo zelai baketsuetan
 biotzeko adiskidea ondoan joatanean,
 eta neu guztiz gazte zindoaren erara taiutzea
 arimako gogo bakarra dodanean –

eta naigabe txiki artean
 ain arduratsu alkarri begiratzen deusagunean,
 sarriago ain bakan, eta ain banan
 berbak ezpain benazkoetatik urteteen.

Schön, o schön sind sie! die stille Freuden,
 Die der Thoren wilder Lärm nicht kennt,
 Schöner noch die stille gottergebne Leiden,
 Wann die fromme Träne von dem Auge rinnt.

Drum, wenn Stürme einst den Mann umgeben,
 Nimmer ihn der Jugendsinn belebt
 Schwarze Unglückswolken drohend ihn umschweben,
 Ihm die Sorge Furchen in die Stirne gräbt;

O so reiße ihn aus dem Getümmel,
 Hülle ihn in deine Schatten ein,
 O! in deinen Schatten, Teure! wohnt der Himmel
 Ruhig wirds bei ihnen unter Stürmen sein.

Und wann einst nach tausend trüben Stunden
 Sich mein graues Haupt zur Erde neigt,
 Und das Herz sich mattgekämpft an tausend Wunden
 Und des Lebens Last den schwachen Naken beugt:

O so leite mich mit deinem Stabe –
 Harren will ich auf ihn hingebeugt
 Biß in dem willkommenen, ruhevollen Grabe
 Aller Sturm, und aller Lärm der Thoren schweigt.

Ederrak, oi ederrak dira!, poz baketsuak
zoroen zarata basatiak ez dakizanak,
are ederragoak min isil jainkoz eroanak,
begiari malko zintzoa dariola.

Orregaitik, bein gizona ekaitzak inguratuta,
gazte gogoak onezkero bizkortzen ez dauanean
zoritxar odei ilunak zemaika gainean dituala,
ardurak bekokian ildoak sakontzen deutzazanean;

oi, atara egizu zurrumbilotik,
ezkuta egizu zeure itzalen pean,
oi!, zure itzalen pean, kutuna, bizi da zerua,
nare izango da areetan ekaitz artean be.

Eta bein mila ordu ilun ondoren
nire buru zuritua lurrerantz makurtzean,
eta biotza mila zauriz burrukan akitua,
eta bizitzaren zamak lepo aula okertzean:

oi, gida nagizu zeure makilaz –
iraun nai dot aren gainean makur,
ilobi ondo-etorri baketsuan
zoroen ekaitz eta zarata guztia isilduko dan arte.